

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Bigarren Urtea - Pamplona - Octubre - 1967 - Urrilla - Iruña - 20'gn zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

Euskal Besta Saldisko Errian gure Diputazioak eratua



Yoan den ontako bigarren igandean, au da Urrillaren zortzigarrenean, Saldisko Errian, berrogei ta amaika neskatxe eta mutikoei «Sariak banatzeko» euskeraz oso ongi mintzatzen iakiteagatik Euskal Besta polit bat Nafarroko Diputazioaren «Euskeraren Aldeko Saillak» antolatatu zuen.

Atsaldeko laueta euskerazko bezperekin asi zen Besta, eta auek bukatu ondoren Sariak Banaketa egin zen Euskaldun zintzoak baidira gure saldistar maiteak eta denak, eskola adinekoak yakiña, sari ederrak artu zituzten: Berreun pezetako kartilla eta diploma bana, gozokiak, liburuak...

Segidan bertsolariak aritu ziren bildu zen yende guzirako: Arotzarena Lesakako, eta Lasarte Leitzeko. Txalo ugari entzun bear zuten gure koblari on eta famatuak euskal yendeak biotzean baidauka bertsolaritza.

Iruñeko Peru Txiki trebeak parrez «lehertu» egin zun yendea bere euskal ipui eta ateraldiek.

Saldisko dantzariak bertako «dantza luze» deitua ager erazi ziguten eta bai ongi dantzatu ere.

Besta onek euskeraren aldeko nai eta maitasuna piztu erazi zituen zegon yendeari. Ia denon artean euskera maitea goratzen dugun lenbaiten!



NAPARROKO BIZIA

EZKILLAK

«Ezkillak entzun eta ez jakin nun», esaera zaharra da. Iyebarre' ko ezkillen ezin da ori esan. Txiki edo aundi, Iyebarreko ezkillak agotan dabilta, entzunak dira. Itsasoz aruzko aldean ere jakina dute ezkil jotzaleak nor geiagoka ari izan direla Nafarroko erritxo batean. Gauza zaharren giro berria.

Ba dakit, bizi izan balitz, negar egingo zuen bat. Ba nuen nik osaba, Buenos Aires'ko organo aundian Arbazu'ko ezkilak jotzen ibiltzen zena. Eta bai joazi ere! Berak ala zion beintzat. Itsasorik izan ez balitz bezela, Aralar mendia ikusten

omen zuen eta bere amarekin itz egiten. Aur denborako ezkillen soñua!

Gogorra da ezkillen gertatzen dena: egunero entzuten ditugu eta ez gera konturatzen. Baño ixiltzen diren egunean, zer utsa errian! Ostiral Santu eguna bezela, ezkillik gabeko erriak, erri illunak dira. Osasunarekin gertatzen dena: behin galtzen duenak daki ongi osasunaren berri. Eta ezkillak estimatzeko ez da lertzea bezelakorik: ura zen, ura ezkillak! Errian urtua, eta beste burniekin batera, gure aurrekoek emandako urrea zeukana!

Alare, sort-erriko ezkillaren soñurik fiñenak errikan kanpo bizi den semeak entzuten dituenak. Hil arte berekin daramazki.

Bakoitzaren lagunik oberena, erriko ezkillak. Norbait hil balin ba da, hil-ezkillak, otoi-tza. Aita-amen il ezkillen samia!

Erriko festak direla ta, bezperatik lenbiziko soñulari, ezkillak. Gero, ardoa eta tanborra: otsak.

Argi sentian, geldi, bakarka, iruzki berriaren ateratze ixila ez auste-ko bezela. Suarekin, tarrapatan; prisaka. Eta arri-erauntsitan, konjuroa. Eta erriko gizonak batzarrera biltzeko ere, ezkillak.

Nik ezkilendako toki bat asmatu behar izan banu, eliz torrea egingo nuen. Goien goienean, merezi du ta.

Gaur, sokak autsi ta erlejuzko ezkil jotzeak asmatu dituztenean, Iyebarren nor geiagoka polita sortu digute. Zahar eta gazte, amabi ezkil jotzale inguratu zaizkie. Eta politena, bi emakume.

Munduko jendea ba omen zen! Azkenean telebista ere bai!

Bi gauzek poztu nante: gazte batek lenbiziko saria ateratzeak; denetan gazteena zen Tomas Ganboa, «Tomasiko». Eta bigarrena, Arbazu'ko ezkil jotzaleen esku ona —aspaldiko eskola!— bizi dela jakiteak. Pozez negar egingo zuen, bizi izan balitz, nik dakiten arek.

SAGI

LAKUNTZA

Izan zen denbora bat, gure aita-amen denbora, erriak elkarren artean burrukan ibiltzen zirena. Zent bat aldiz mutillak, festazale, kite-rrak bizkarrean zituztela aldameneko errian sartu ta, norbaiten buruan autsi-ta atera! Ori bai, anak arin behar zituzten iges egiteko. Orain bezela orduan ere arriak begirik ez, eta arrika bialtzen zituzten beren etxetara.

Garai artan Lakuntzeko pertza aipatzea asarre-bide ona billatzea izaten zen. Ez da ezerengatik; baño lakuntzarrak etzuten ongi artzen. Zoaz zer iduritzen zitzairen!

Aralar mendian piztu zen sua. Asko ziren San Migel'a igotzen ziren erriak. Artuak zituzten beren egunak eta, ez baita esana urtero denbora ona izango zutela, borda antzeko barne batzutan ba zituzten beren sukaldeak. An dago bat, Lakunt-etxea.

Baño, lakuntzarrak ba zuten oitura berexia: errian prestatu ta denendako tripotak erematen zituzten, salda bero batekin barneak berotzeko. Beste erri batzutan ixuna (multa) botatzen zieten joaten etziren guzietan. Etxe bakoitzetik batek beintzat joan behar izaten zuen. Bildur izateko zen prozesiorik gabeko urtea! Beti arriaren bildurrak...

Urte batez, lakuntzarrak etzuten tripota jaterik izan. Asto edo mando, dena dela, minetako bide txar artan aztapatu ta ankaz gora zamaria. Alde batetik pertza eta beste-rik tripota, zein beren alde malkorra bera! Akabo festa!

Zer pentsatu behar zuen alakorik Huarteko errotariak Zer demontre

gerta zaiken ikustera ateratzen da ta, lertu adi antxe tripota! Begia galduta aurrera gizona.


Ala bada ez bada, Lakuntzeko pertzaz itz-egin behar garai bateko lakuntzarrerri!! Gutxiagorengatik besotan norbait ikusia izango duango urka-mendiak!

Ala ziren lengo kontuak. Gaur ez da erri arteko burrukarik; mutilen artean ere ez kiterrik. Arriak porlanez artuak dira eta ez dago txakurrak ere uxatzerik. Erri guzia San Migel'a igotzea, pentsatzerik ez! Lengoa oiturak, txar eta on, galtzen joan gera; ardo guzia eman duen zagia bezela zimurtzeko arriskuan gaude. Errex da galtzea; eta gero zer?

Lakuntzan erakutsi digute bidea: gure aurrekoengandik artutako gauz onak, aurrera atera; eta berriekin aberastuz joan. Biltoki apaña ikusi dugu izen zarrarekin bataiatua. Eta lengo denboretan bezelaxe, San Migel'ko bidean gazteak, baño zaharrak autobus ederrean artu ta...

Ez; ez dira geiagoko lotsatuko lakuntzarrak «Lakuntzeko Pertzaz». Eta ez dira orrengatik jende atzertuak; ikasiaren jokabidea da baztertutak diren urte zaharrak argira ateratzea. Gure oitura jatorrekin batera euskera, eta eskualdun nortasuna.

Gazte jendearen eskutan dago Eskualerriaren etorkizuna. Zorionak! J. M. S.



LAKUNTZEKO PERTZA



Uste gabeko joku politarekin atara dazkigu oraikoan lakuntzarrak. Beren oitara zaharretan aspaldi lo zegon «Lakuntzeko Pertzaren» gertaera berritu dute, aurtengo udan, San Migel'go bidean. Naparroaren esnatze gazte ontan esan nahi duelakoan gaude, eta gogotik ematen dugu berria.

Illunabarra Lakuntzara orduko. Atari geienetan bada jendea. Zine ta festa-leku, etxe ta plaza, nola berritu den urte auetan Lakuntza!

Aste erdia izanik, ikusgaia ba dute zineman, eta ardagela guziak idekiak dira. Ostaturik ez da gaurko egunean: argi ta gorri, ain eder egiten dituzte!

Bi gauza arkitu ditugu, ezagutzen ez genituenak: gazte taldetxo bat bizi-naia, ernea; eta beren biltoki atsegiña. Ari pilotaren asiera eskutan ginuela iduritu ta.

—Zenbat zerate elkarte ontan? —galdetu diegu.

—Ogei ta bi.

—Noizkoak zerate?

—Duela iru urte asi ginen; baño pixkaka joan gera. Ez ginuen itto nahi. Bestela, aurtengo udan bedeinkatu dugu barne au, eta esan daike, aurten atara gerala jendearen aurrera.

—Zuen asmoak?

—Egia esan, iñoren trabarik gabe gustora ibiltzeatik bildu gera. Deporte kontua, batez ere, asko gustatzen ta... jende asko dagon lekuan ba dakizu zer gertatzen den. Emen ez digu iñork erretzen. Gañera, ar-

tzen ditugunak ere merkeago ateratzen dizkigu gure alde ekarrira. Eta batez ere, geure etxean gaude nahi duguna egiteko...

Konturatu naiz gizonendako bakarrik dela. Berek ibiltzen dituzte untziak eta berek garbitzen. Ez dakit zer esango duten etxeoandreak. Besteak ez dute istillu orrenik oraindik...

—Aurtengo udan egin duzuten festa ortaz jakin nahi nuke zerbait.

—Bat batean ateratzen diren gauzen kontua: pentsatu ta egin. «Lakuntzeko Pertzaren» bidea egin behar diau, —esan ginuben—; baño,



berandu zen eta autorik ez ginuen arropatu jai artan. Gero, bestean bai.

—Automobilla esan duzu?

—Bai, zaharrendako. Besteak, asoto ta guzi, oinez joan ginen goraño. Ikustekoa zen Martinen astoa pertza alde batetik, eta ardoa bestean! Eztuela ainbeste jende bere atzetik sekula ikusi!!

—Norbaitek esan du zaharrak erematea, denbora batez adituak zizuten guzien gusto txarra kentzeko bezela egin duzute. Egia da?

—Gu ez gera ainbestetaño aillatu. Gañera ez ginuen betarik ere. Bideberria ba dago ta zaharri gustori emateatik... Eta ain denbora ona izan ginuan!

—Berriz ere egiteko prest!

—Bai, Jainkoak nahi badu! Aguztuan, Ama Birjina ondoreko jaietan.

Pozgarri da lakuntzarren jokabidea. Orain arte gure gauzetaz naiko lotsatu gera eskualdunok.

Futboleko mutilak pertzaren gainean erakusten dute beren balona. Ogei ta bi lagunek sukalde on bat nahi eta, nun sortzen duten «Lakuntzeko Pertza». Azkenean, apez berriari ere argitu baño len sokaz ere man zioten, pertzean, lenbiziko baru austekoa. Goizeko bostak eta erria kantari. Ez ote da urte askota ko lo zorrotik esnatzea?

«Lakuntzeko Pertza» gerta laike gure nortasunaren konzientzia odol berritze bat. Edo bestela gezurra. Aupa mutilak!

J. M. SATRUSTEGUI



ELIZAREN ITZA

ELIZ BATZAR NAGUSIARI BURUZ

Aurreko aldiaren itz eman bezela, asten aal gera Jacques Maritainek bere liburu berri ortan «Le Paysan de La Garonne» dionaz. Asieran belauniko eskerrak ematen ditio 1965ko Abenduaren 8'an itxi zan Batikanoko Batzar Nagusiari. Lenik eta Juan XXIII Aita Santuaren gogoz, artzai erara irakasle erara baño geiago jokatu da, naiz bi konstituzio garrantzi handiak sinisgaietaz eman. Gauden denboretan Berri Onaren mamia aztertzea eta biotzak lantzea egoikiago bai zen, sinisgaiak erabakitzea baño. Sinisgaietan berriak ez diteke asmatu, lengoak argitu bakarrik, aldatu ez. Sinisgaiak sendo tinkaturik daude aurreko Batzar Nagusitan eta ainbeste gizalditako Santuen ikasbidetan. Jainkozko sinismena biotzez jaso dun gizon bat izan aal daike aini ergel eta kaikua, betidanik zearo tinkatutako egiak, kolokan asi, alderaka makurtu edo ezkoa bezela urtu ditezkeela uste dezakenik? Ala ere oso urrutira joan bearrik ez dago olako txorakerikin topoztatze, gaurko neo-modernisteri so egin gañerantzean. Tamalgarri!

Pozet betetzen da bat egizko askatasuna, giza nortasuna (personalidad humana) bere eskubideekin goien-goieneko mallan jarri dituela Batzar Sainduak ikusirik.

Poz-pozik ikusi dugu erabakirik erreligio askatasuna (libertad religiosa), ez naski nik sinistu edo ez sinistu dezaketela edo Jainkoizunen bat sortu nai erara, betiko Egiak lotuko ez banindu bezela; askatasun ori da iñungo Estaduk edo lurreko agintarik ez dezakela gizon bati eragotzi bere etorkizuneko egian billa saiatzea eta egitaz uste onean arkitu duenari eustea (nere kontzientzia oker egon di-teke baño arren aurka edo kontra jokatzea iñioiz ez da zill, konzientziaren esanera ari bearra daukagu).

Poztutzen gera Elizak indar berriekin eragiten gaitunean, senide bezela ziñez jardutea, gutxi edo asko Egiarengandik aldendurik dazkigunakin, siniste katolikoekin ados ez dauden kristauak direla, edo kristau religiorik ez daukatena, edo Jainko-gabeko ateak eta batez ere senidetat artu bear dugu Judutar erria; onen aurka mintzatzea Kristoren aurka mintzatzea da (Jarraituko).

LAKUNTZARRERIAK

Aspaldi batean etortzen omen zen Uarte Arakil'era lakuntzar ardo saltzale xeble bat, ardo, ozipin, pattar, olio ta olakoak saltzera. Bere gauzak mando batek eragindako gurdi bati en artuta, erriz erri ibiltzen omen zen, kantaka, fixtuka ta zigorrarekin mando geixoari zaplaka.

—Ze, ardo ona al dakazu, Joxe Mari? —esaten zioben maizegi uartere etxeoandriek—, Azkenekoa beño obie izango al da beintzet.

—Zer ba?

—Eskube joan zakizula, apike, ardoa bataiatzien.

—Ez oixe; Erriberakoa bertakoa da nere ardoa, Murtxante'ko lijtioa. Ta eztiot nik sekula-sekularun ur tintik ee bota. Libra natxala Jainkoak!

Etzioben siñestatzen; beño norbeiti artu bier ta berari artzen zioben alare ardoa, bestanaz gizon xaloe ta alaia baizen gure Joxe Mari.

Bein bati en, iñote festak urbil zaudela ta, afari bat prestatu bear omen zuben uartere gizon batzuek lakuntzarrarekin. Onek ardoa ta pattarra jarriko zituben, ta uartere tripota-zopak, tripotak eta umerriya.

Uartere afaldarren artien ba omen zen bat jendie axekatzie atsegin zakiona, ta bestiekin elkar arturik, erabaki omen zuben afari gau artan lakuntzarraren bizkarretik farre egitea. Alta eztira mutil txarrak ortarako lakuntzarrak berak ere, esaten dubenez!

Joan omen zen uartere bat ubaldera afal aurrien, eta mandaburu batzuk arropaturik, tabernara itzuli omen zen, pixtiyek pota bati en zitula. Ta lakuntzarraren oarkabien, ardo botillara bota omen zituben.

Asten dira ardoa edaten ta —Uaj! zer da au?— esan zuen batek, zotik mandaburu bat ateratzen zula, okaka ta nazkaka. —Zer egin diguk, nazkagarri orrek?

Koño, koño! —erantzun zien lakuntzarrak ttattit eta belarri apal—. Oyarzabal'eko errekan mandaburuek izaten dire edo? Pixka —pixka bat bota ziot andik. Mille demontre!!

Laixter zabaldu omen zen erriyen lakuntzarrari egin zioben ñikajokube. Ta laixterrago pasatu omen zakion larrialdiye gure gizonari. Andik aurrera, ardo saltzera etortzen zen aldiero, onela kantatzen omen zuen Uarte'ko karriketan;

Ardoaaa, ozpiñaa!

Pinta batekin bi iñaaa

Ta alare fiñ fiñaaa

Artu biar al diazu, Martiñaaa?

UARTEARRA



Agustin Zubikaray

1967 URTEKO «TORIBIO ALZAGA» TEATRO SARIAREN IRABAZLE

Aurten «Toribio Alzaga» teatro sariaren irabazle Agustin Zubikaray Ondarroakoa izan da «Gizon on eta andre erre?» obragatik. Erabaki duen juradua Piarres Larzabal, Iñaki Beobide eta Gabriel Aresti-ki osatu dute.

Agustin Zubikaray-ren nortasuna erakutsi beharrik eztago, oso ezaguna baita gure artean.

Sari au eta «Domingo Agirre» novela saria Bizkaiko Aholko Kakaxak sortuak dira Euskaltzaindiarekin bat eginda eta txandaka ematen dira, urte bakoitzean bat. Beraz, datorren urtean novela saria tokatzen da. Asmoa dago sari aukerak jasetzeko —oraingoa amar milla jabetza izan da— eta oiñarriak libreago uzteko luzeerari dagokion kontuan.

Urrengo teatro sarirako, gañera, aurrentzako gaia eskatuko da. Zeatz jakiñeraziko dira oiñarriak.



EJEMPLO A IMITAR

Hemos recibido una carta de Barcelona, cuyo contenido no dudamos en calificar de testimonio ejemplar. He aquí algunos de sus párrafos más significativos:

«Soy de Navarra, de una zona donde hace siglos no se habla el vascuence. A pesar de ello, toda mi vida he sentido un gran cariño por nuestro milenario idioma, y en ratos libres he procurado aprenderlo. ¿Qué significan trescientos o cuatrocientos años de eclipse del euskera en grandes zonas navarras, al lado de los millones de años que nuestro País lo ha hablado?»

«Llevado de ese cariño, aun estando alejado de Navarra, he compuesto las mejores gramáticas de nuestro idioma y las he sintetizado a máquina, grabando después el resumen en magnetofón. De este modo y con infinidad de ejercicios escritos, he logrado, sin profesor, dominar una pequeña parte hasta el punto de escribir algunas cartas comerciales a mis representantes del ramo metalúrgico de Guipúzcoa.

«El dialecto que he tratado de asimilar es el guipuzocano; aunque supongo que debe de haber poca diferencia con el navarro...»

«Pero el objeto de mi carta es rogar a Vds. tengan la bondad de escribirme a la derecha de ciertas formas verbales, que en hoja aparte les remito, la traducción exacta al euskera, ya que ni en Umandi, ni Arriagaray, ni en otros las encuentro.

«Solo me queda ovacionar y felicitar de todo corazón a cuantas personas en la Diputación Foral contribuyen a la resurrección, propaganda y esplendor de nuestro milenario idioma. Me refiero al número de años.

«A pesar de todos los derrotistas, que afirman que retrocede, ningún idioma de Europa puede alardear de tan larga vida. Un idioma que se hablaba en la Edad de Piedra y se sigue hablando por muchos miles en 1967. ¿Quién puede decir eso...? Eskerrik asko!»


HIGINIO OIZA

NOTA. — Frente a tanto romanticismo dialectal e inoperante, incapaz de asimilar las grandezas que pregonan, queda el testimonio de una minoría de hombres consecuentes con sus principios. Son dignos de nuestra admiración y respeto.

De nada sirve lamentar. Con bilingüismo oficial o sin andadera alguna, la suerte de este legado excepcional de la más antigua cultura europea depende, en definitiva, de la responsabilidad y toma de conciencia efectiva, de quienes sin merecerlo somos sus afortunados portadores. Nuestra responsabilidad no se ciñe a los intereses de una minoría en franca regresión; es patrimonio de la cultura universal y constituye maravilloso prodigio de pervivencia histórica.

Los esforzados, como nuestro paisano Oiza, cuentan con el reconocimiento de la tierra que los vio nacer, y constituyen un ejemplo a imitar. Aurrerá!!

J. M. S.



«1967 urteko estropadak, altxa gora, biyotzak»



badute akatsa berekiñ. Jaungoikuak aurka izan dituzte, diyot biyotz negarrakiñ

— 10 —

Bigarren txandan jokatu biarrak tristura aundiz bete gaitu. Itxu itxuan jokatzeko orrek ez biar aundiyak baditu. Zer ari diran ezdakitelara, ¿zeri ta nola begitu? Ilusio, nayak erori ziran eta ziran lurperatu.

— 11 —

Igande goizian egualdi ona; itsasua oso bare. Mundu guztiya pozetan lertzen Donostira'ko du bide. Zeñek geigo ta zeñek gutxigo, iñor ez dirurik gabe. Askok jokatzeko duten askorek dute egiz beren kalte.

— 12 —

Lenengo txandan Ondarrabiya, Pasai San Juan ta Lasarte, irurek zeñi baño zeñi obiak, eznoia naiko irukote! Atorra berde, roxa, gorriyak nun dabilzan badakite. Gaztetasun ta osasunaren ispillu ederra zarate.

— 13 —

Uraxe izan zan burruka aldiya mundu guztiyen gustokua. Ondarrabiya zigan ederki bere almena agertua. Lasarte gero, aidoso beti bigarrena gelditua. Ta Orio zan irugarrena bere balizan sartua.

— 14 —

Bigarren txandai jo dio orduak. Orio'k ditunak eman biar. Atera ez ezik bide guztiyan ibilli zan ariñ t'azkar. Bañan itxuan, erlojuen kontra, kezkatu, larri ta dar-dar. Arraunketa du zoragarriya, leen zun bezela, gaur, biyar.

— 15 —

Lenengo igandez, ontan epaya: Lenbizikua Ondarrabi. Bigarren degu Lasarte'koa, ta irugarrena Orio'ri. Utskeri batez irauzi diyo bigarrenak erri oni. Ta dana dala, urrango igandian, jarri begik burrukari.

— 16 —

Izugarriya izango dala nabaitzen degu guk garbi. Ez da ilusio, txorakeririk. ¿Zein izango da lenbizi? ¿Zeñek irauziko du Bandera? ¿Zeñek jakiñ lezake ori? Bitartian degu egon eziña. Dar-dar batian eta larri.

— 17 —

Igande ontan izanak dira azken burruka ikustera erri t'arrotza eziñ kontaalara. ¡Alakua zan gertaera! Ipar aizia bazan puska bat t'arrotzen zun asko ura. Eguzki garbi nagusi zegon. ¡Zoragarriya zan ura!

— 18 —

Gaurko estropen mami guztiya Iru Aundiyetan zegon. Ondarrabiya eta Lasarte; irugarrena Orio'n. Irurak zeñi baño zeñi obiak. Ikustekok gaude gauz on.

Eta arraunketak biarko du izan izerditsu ete sakon...

— 19 —

Irurok batsu atera ziran izugarri txanparekiñ, eta bidari jarraitzen diote itsasita elkarrekiñ. Balizarako bitarte ontan zeñi dan aurrena eziñ jakiñ. Zerbait orduan nabarmendu zan. Ez giñan lasai t'atsegiñ.

— 20 —

Lasarte aurrena, bigarren Orio ta irugarrena Ondarrabik. Ikusia dago Ondarrabik. ez dala kenduko dionik. Gaur ere laxter jarri zitzaigun beste biyoren burutik. Bukatu zigan bere bidia aunditasunez beterik.

— 21 —

Irabazlia izango zala bagenekigun aurretik. Gaurko burrukan etzayo Orio ibilli oso urrutitik. Lasarte bañon denbor gutxigon zabiliz, Orio, bidetik. Segi orrela, ta izango ituzu zorianak gure partetik.

— 22 —

Orixek nai zun agertu Oriok, lenguan egiñ ezin zuna. Ori orrela gertatu biarra bazan, bai, naikua pena. Orregatikan arantza atera t'artu ta dago atsedena. Oso trankilo gelditua dago. Egiñ digu paper ona.

— 23 —

Artzazu maitez, Ondarrabiya, Orio'tarren besarkada. Ikusi degu danon gañetik zure nagusi egakada. Eskutan dezun bitarte guztin euki zorion betekada. Urrango urtiak, ¿ze ekar lezake? Zorion aundigua, biar bada.

— 24 —

Berrizkatu dan giru oneri, arren, gu danok lagundu. Lagundu diru eta indarrez. Bide guztiyak lagundu... Ez ditetzela eritu berriz; ez ditetzela moteldu... Euskal erriyan estropen alde indar berriyak txertatu.

JOAQUIN ALDAVE

Gure gaitzat bi itz

Gure gaitza gaitz gogorra: gu ain prest bekaitzera!
Gerok bakarrik nai goiti: bertzeak buruz bera:
Bizi gu zorionean: anayak, negarrera:
Gurea ontako eman: lagunena, txarrera.

Gure landako zikiñak; belai bazterrekoak, ankapetan onda bitza gure barridekoak: bidera guk botaz geroz, ditugu egin naikoak: ez gara gu bide ortaz orain beartzeakoak.

Guk dabilgun bidetxo, euki dezagun garbi: ez ba utzi or ibiltzen txerri muturkelari: barrideko oyek ere, ez asto ta ez ardi: bidea gurea data, ya nork ote ausardi!

Lanetan atzeraturik dabil barridekoa: baño bera laguntzea ez zait bearrezkoa: nere lanak egin eta orrenak negarrea gauz goxoa bearrean, zait arrunt nekezkoa.

Barrideko iratzeak, metan eder zaudenak, erre-kixkali ditut nik, auts biurtuaz denak: mozkoraldian nintzanta, ondatu bai arenak! baño berak ez ditzala ukiture geurenak!

Barrideko aur ttipiak, yostetan ari dala, xeatu daku gaur goizik sukaldeko kristala. Aur aundia tzarkerian, naiz ttipia itzala! Kristalaren balioa, laister ordain dezala!

Gure etxeko alaba, neskatx garbi-garbia: txuriketak egiteko, ura bear garbia: giltza lasairik uzten du gau osoz irikia: zerbait aldiz busti daku urez etxe guztia!

Aldamenean daukagu etxekoandre kexoa! Arpegia garbitzeko urik ez dulakoa agertzen du aunitz aldiz goratuaz besoa. Ez da nere emaztea bezein andre goxoa!

Ur eskasia dalata, milla istillu emen. Ura ondatzen dugula, auzoan diote, omen. Auzokoak, goraxago: gu berriz, beiti, azken... urak, beti, indar beiti: aurrera ere... amen!

Elkartzea ona dela diote batzuk naski: nere gauzak konpontzeko, banaiz oraindik aski: noizbait, gero, zaartzean, yartzen baniz ni gaizki, laguntzak izanen ditut diruakin errazki.

Orrela ari direnak, ditugu gutartean. Min, arantz, neke ta lanak, aundituz bitartean. Zer kalte ikusten ote dute ok elkartzean? Berexkuntzaren pozoiña, noiz arte biotzean?

Noiz entzunen ote dugu maitasunezko itza? Biotzak erekitzeko nork ekarriko giltza? Batasunean yarriko gaituena balitza, sendatuko litzake, bai, laisterrik gure gaitza!

IBARRONDO

Ulzama'ko beor baten bersoak

Orain berrogei ta amaron bat urte, Illarregi ta Orokietako bi gizonak, egin zuten beor baten tratao. Gero, larrea botata gizendu zelako ta markarik etzuelako, jezin ezagutu saldu-erositako beorra...!

Gertaketa ontaz, "GOLDARAZ'KO BERSOLARIA'K", atera zituen berso polit batzuek. Geinak galdu ziren, baño, eskerrak orain Iruñen bizi den Zarranz'ko Mariari, iru beñepin argitaratu dezazkegu. Ara, emen.

Beor aularen ajiak.
Belar berriak sendatzen ditu,
Indarra zerbait artzen dunian,
Baita aldatu trajiak.
Ulzaman ezin ezaguturik,
Aurten bakoitxek berriak...
¿Zerbait deskuido gertatu dela
Diote bersolariak!

Beste asko bañon obeki.
¿Ibilte onak ez dituenak,
Pagatzen ditu larrutik!

Berriz olako deskuidorikan,
Ulzama'n gertatu ez dedin,
Medio onak nola diraden,
Dakienari, galdegin.
Artaldientzat oitzen dena da:
Etxeko marka belarrin.
Zaldi beorrai, letra aundi bat,
Burniz erreta, epurdin...

Orokietara beor polit bat,
Saldu da Illarregitik.
¿Orra gizona engañatua,
Naiz sano egon barrutik!
Gizon formalak konpontzen dira,

ANDRES ASTIZ





EUSKALERRIKO ESKU-LANAK

DONOSTIKO EUSKAL BESTAK

Aurtengo Donosti'ko «Fiestas Euskaras» deitutako Bestetan ikusgarri aunitz agertu dituzte. Dantzariak, Kantariak, euskal-kirolak, bertsolariak, euskal-kultura eta aurten behere ez bezala Euskalerrian egiten diren esku-lanak, lan oien egileek yendearen aintzinean ari zirelarik. Or agertu dituzte, kaiku, eskalapuin, uzterri, buru-zare, galtzerdi, pilota kontuko gauzak, egur-ikatza eta bertze mota aunitzetako lanak. Lan oietan 25 lagun ari izanak dire eta esku-langile oien artean lau baztandar bagintuen, Nafarroa'ren izenean gure nortasuna goraldututelarik. Emen beren izenak: Gregorio Goñi elizondarra 93 urteko artzain zaharra eta ardi ilearekin galtzerdi ederrak egiten zituela. Nieves Salaburu elizondarra gure eskualdean gorki ezaguna, buztin zuriekin ardi ta bildotsen iduriak edo figurek eginin. Domingo Etxandi erratzuarra, kaiku ta opor egile. Guillermo Amezttoy iruritarra, eskalapuin egile. Aipatu ditugun lauak baztandarrak eta bertze gaierakoak gipuzkoarrak geienak eta bai nafartar zenbait ere. Euskaldun oken lanak izan dute errekiste eta Trinitateko plazan yende aunitz ibili da gure esku-langile oien ikusten. Ar ditzatela denek gure goresmenik biziaren, batez ere gure lau baztandarrek, yendearen aintzinean beren lanak erakutsiaz Baztan'go lurraldeari ohore aundia eman baitiote.

Zorionak berriz ere eta Yaunak urte aunitzez kontserba zaitzazela.

AIZE ZAMIÑA

Osasun ona, sabel azkarra ta sa-soñik oberena zeukan alabak, Aragiz ere ongi orniturik zebilen.

Alabaren gizenetasun au ezitzaion ain eder amari, Nolazbaitere mehatu nai zuen nexka: baño... ixilean; mehatzeko konturik alabari aipatu gabe. Iana ta edana, bai, negurriz ta xuurki ematen abiatu zitzaion; au osasuna zaintzeko ta bizitza luzatzeko ona zela ta.

Aldapan gora aldapan bera ibilazten zuen, egunetik egunera aultzen ari zen nexka: ta onek, naitanaiez, kilo batzuk, poliki ere, galdu bear!

Kiloein batean, arpegiko irri goxoaren pollita eta eztarriko kantutu eztiaren iturri loria agortzen abiatu! Ez zakien bada aingerutxoak zertaz zeuken gose-egarritan amak!

Aldapan gora-aldapan bera zebilen atsaldetatez, menditarrean zegoen basetxe baten larrainean arkitu zan auldukatu nexka. Etxe artako alaba, ain zuzen, bere adintsua ta errian zuen adiskiderik oberena. Onak sarrarazten du sukadean: alkitto bat ematen dio iar dedin; ta, amaren baimenarekin, orduantxe erretako gaztain epel goxoak eskeintzen dizkio ian ditzan; extañu bat bete pitar, urrin ezti-pintarkari, begien aitzinerat ekarriz.

Gaztain saila ian du karrikar nexka gosetuak: pitar guzia iren-tsi: ximur zeukan sabela bete zaio; ta poza dario.

Basetxe artako atea, nai zuen guzietan, beretzat zabalik arkituko zuela erran zioten biotz osoakin, ta ez bein ango etxeokandrea ta alaba on aiek.

Gonbit au atsegin zaio nexkari: ta or non abiatzen den atsaldetateo basetxe artara: ta basetxeo ama-alabak,orra nola asten zaizkion naiko gaztain ta pitar atsaldetateo ematen.

Egun guttiz bereganatzen ditu goseak ebatsitako aragi kilo guziak eta geiago. Ama oartzten da: iana ta edana negurriz ttipitzen dio. Baño basetxeo paderak zorro aundia du; nexka, egunean bein bedere, bear beza'a asetzen da.

Ama ixilik, zer egin ezin asmatuz. Nexka ixilago, amaren biotzako maitasunaz zer asma ezin. Basetxeokoa arriturik, nexkaren gose ura onezkoa ote zan edo...

Bere asmaketa guzien gañetik alaba leertzeurren iari zitzaiolata, medikuarengana eramatea erabakitzen du amak. Au, nai izatea ez da aski. Osasuna saltzeko ere daukala dio alabak. Doazila eriak medikuarengana «Iana, iana neri; ez sendakiña!».

Orduan, gizenegi dagola, aize sa-miñak dituela, mehexago obe-lukela... asten zaio ama. «Tanean ta edanean exkaxago ta xurrago zurekin ibili naizela, ezara oartu, maitea?».

Alabak berriz: «Ez ni bakarrik: Errekatzuloko ama-alabak ere bai. Zure agotik iakin banu lenbi-

IKASI, MIKASI...

!DIRUIK ETZUTEN BAÑO MAJO BEENDATU ZUTEN!

—¡Ola, Martijoshe! ¿Ongi?
—Ongi, baño...
—Gogorazio illunon baten azpian zaudela susmatzen dot.

—Egi da, Jaune.
—¿Ze da, bada?
—Negu beltzak erakutsi do bere bekain illuna, aize otzak botatzen ai ditu osto guzik lurrea, ta gu ere...

—Gu, ere, ba goaz, geldi, geldi.
—Agotik kendu dit berorrek esatea noaia. ¡Gu, ere, ba goaz mundu ontatik! Orrengatik netorren berorregana, gogorazio oitaz atsegin pisko baten bille.

—Al baneza —ta, uste dot, baietz—, poztuaziko zaitut. Neke ta bearrez bete da eriotzeko eguna, baño fedea degunentzat, eriotza ez da ain atsegabea. Begira zer dion San Paulo Apostoluak:

«Aniak: Ildakoetaz zuek ez-jakiñean egoterik ez dugu nai, itxaropiderik ez dutenak bezala goibeldu etzaitzen. Jesus il da piztu zala siñesten ba-dugu, Jesusengan illak ere Jainkoak Arrekin bereganako ditu. (Thess. 1, 4-13-18)».

—Ortarako bear da Jaungoikogan —bere grazian-il. Gañea, berorrek lengoan zion bezala: EGINDAKOAK, PAGATU BEAR DIRE, ta ni pekatari aundia naiz...
—Pekatuen obena —ofensa—, aitorza edo confesioaz ta biotzeko damutasunez, deseiten da.

—Baño, ¿pekatuen ordaña?
—Pekatuen nekea —pena— ordaintzeko, dituzu: zure lan eta nekeak, errezoak, limosnak, mezak, erresponsoak...
—Lanak eta nekeak, ba ditugu pobreak, bear baño geigo, baño mezak eta erresponsoak atatezko, dirua bear... Bete bezala, purgatoriotik atatezko ere, pobrik desbentajan...

—Ez, Martijoshe; ez da zuk diotzun bezala. Mundu ontan, bai, pobriak beti aberatsen azpian egondu ta egonen dire, baño beste munduan, ez.
—¡Ez takit ba!
—Ekus zazu ze esaten duan Ebanjelio Santuak:

«Bein, Jerusalemgo Elizeko atarian, Jesukristo eserita begira zegoen, nola gizonak eta emakumeak dirua botatzen zuten sarrerako kutxan. Aberats batzuek, diruketa, zillarrezkoa ta dena, botatzen zuten. Ontakoan, etortzen da emakume alargun eta pobretho bat, eta, patrikatik aterata, bota zuen ¡lauko bat! —isos bat!

Au ikusita, Jesusek esan zien Apostoloai: ZINEZ, ESATEN DIZU ET: EMAKUMETXO ALARGUN ONEK BESTE GUTZIAK BAÑO GEIAGO BOTA DU KUTXAN, ZERGATIK BESTIAK SOBRAN ZUTENETIK BOTA, DUTE, BAÑO ONEK BEAR BEARREZKO ZUN GUTZIA BOTA DU. (Luk. 21-1-14)».

Ez du, bada, Jainkoak begitzen ZEINBAT ematen duen baktzek, baizik ZEINBAT AL DUEN EMAN. Aurki, aberats batzuek ematen dutena, GUTXI izanen da, ta pobre batzuek ematen dutena, ASKO...
—Denetatik izango dee...
—Ori, bai, Martijoshe. Orrenga-

ziko egunetik ni goseak idukitzea zergatik zan, ez zinuen nere osasunez gaur kezkarik izanen: ez ta nik ere nere buruan zure biotzeko maitasunaren dudarik ibiliko. Ta gorputzez, aski eder nabil. Gose bearriki!».

Adiskide: Gosearen bidez alaba gorputzez me ta lirain ikusi nai duen amarik ez duzu ezagutzen, Aragiak galtzeko beren negurriak, alabek berek artzen dituzte gaur.

Baño... elkarrekin itz eginez ta bat bertzeakin konponduz zuzendu dezakegun zenbat gauz makur doazin, bakoitza geren buru ta gerena gogoan ari geralakoz!
Ta gero... aize samifietaz aritzen gu.

IBARRONDO

tik esan det POBRE BATZUEK. Ba dire, elizeko saria emateko, *pobreak* direla esaten dutenak, baño, gero, bere gastuetarako, nonbaitetik ateratzen dutenak.

Begira, bein, neri gertatu zaidena. Orain urte mordoaxa bat, eta Naparroatik urrutit, erri bateko Apez jauna operazioa egiteko joanda zela, bere orde nitzen. Zortzi egun neramazkiela iñor ezagutzen enuen erri artan, etorri zitzaidan gizon bat galdetuz ia bataiatuko ote nuen bere semetxo bat, eta ¡zenbatian!... Erakutsi nion sakristian zegoen TABLA DE ARANCELES PARROQUIALES izena zun kuadro aundi bat, non jartzen zuan ze saria ematen zen i koa, zgnkoa, edo 3gnkoa nai bazun. Azkenian, leitu nion: OSO POBRIA BADA, ¡MESEDEZ! —«Ni oso pobria naiz —esan zidan». —«Orduan —esan nion—, MESEDEZ bataiatuko dizut mutikoa». Ta, ala egin nion. Gero enteratu nitzen, *amar peza ere etzuten aik* (ez deket ongi gogoan, baño olatsu izan bear zun 3gnongan saria...), majo beendatu zutela bataioa ospatzeko. Ta etziren izan familikoak bakarrik, baizik ¡OGEITA AMASEI, gizoneko eta emakumezkoen artian! ¡TARTA TA TXANPAN TA DENA IZANDU OMEN ZUTEN!...

—¡Alajañe! ¡Etzioten gaizki adarra jo!

—Baño, oitakoak gutxi izaten dire. Naiz bataioan, naiz eortzetaren saria emateko, pobriak, bere altasunari begiraruta, aberatsak baño obeki portatzen dire. Gañera, orain berdin egiten baita denentzat...

—Oain, azkeneko galde bat. Ba dee esaten dutenak, purgatorio ta sufrajion gauze oi, apezak sortu zutela, mezak eta erresponsoak atatezko. ¿Ze dio berorrek?

—Astakeri aundia esaten dutela,

ori esaten dutenak. Purgatorioa denik, ezin dezake iñok ukatu, Jainkoa GUZIZ JAKINTSUA ta GUZIZ ZORROTZA dela siñesten ba du. Uste dezagun, ordu ontantxe, iltzen direla bi gizon, biek lauetan ogei urtekoak. Bat, kristau txintxoia izanduzen beti. Bestia, berriz, oso makurre: ago zakarrekoa, elizkizunetarako zabarra, gezurtia, beti lizunkerietan sartuta bizi zena. Baño, azkeneko orduan, konfesio on bat eginda il dela. Ala ere, ¿uste dezuz biek bat-batean joango direla zerura?

—Ez det uste. ¡EGINDAKOAK, PAGATU BEARKO THO!

—Ori digu arazoiek, eta ori digu Eliz Ama Santak.

—Orduan, denboako degu purgatorioan...

—Zure eskuan dezu andik audo edo berandu ateratzea. Naiz pekatari aundia izan, EZ EGON PEKATUAN, txuti lenbailen, konfesio on baten bidez, edo biotzeko damatasun biziaren bidez.

—Oi, nik gabero ithe'ot.

—Ta, ordaindu *aurretik* pekatuen nekea edo pena, meza adituaz ta —al badezu—enkargatuaz; errosario asko erreztatuaz, neke ta lan guztiak Jainkoai eskiañaz. Ez utzi dena seme ta illobai. Bein baño geiagotan, ok komedi piske bat egiten dute aite edo osaba iltzen darian, ¡putriak bezala beren diruak garbitu! (juiziotako burruketan ondantzen ez badituzte...) ta, mundu ontan arrastan irabazi zitutenak, ¡daudela garbitokian!

—Berorrek, nonbait ikasi do nola-koa den mundu zakar au...

—¡Jakin, denak dakigu, noiz edo bein, zer gertatzen den!

¡Egin, egin bear da, DAMU IZAN EZ DEZAGUN, ALPERRIKAN GERO!!

A. AZTIZ ARREGI

ESKUALERRIKO LEJON

MICHEL GARIKOITZ SAINDUAREN OROIMENEZ

Denak dakigu, edo beharko genduke yakin, Michel Garikoitz Franzi aldeko Nafarroan sortua zena, Erromako Eliza Katolikoaren Saindua dela. Euskal Sainduen artean «Saindurik gazteena» da, onekin nai dugu esan gure denboretan, azken urte oketan, Erromako Eliza Ama Saindua izendatu, kanonizatu zuela.

Benafarroan dagon Ibarre'ko errixoan jaio zan, eta Buruillaren lehenbiziko asteazkenean Erromeria, edo Beila izan oi da urteoro. Aurtengoan Buruillaren seiagarrenean ospatu zen Beila famatu au. Bi mila gende bildu zen eta Elizkizunak denak beti bezala, eta Euskalerriko erri jator bati dagokionez, euskeraz izan ziren: Meza, Itzaldiak, Kantuak eta, eta.

Ona emen Napar Garaian gutti ezagutua den Euskal Nafar Saindu aundi bat.

«TXIKITO DE CAMBO» PASTURALA DONOSTIAN

Ille ontako lehenbiziko ingandean, au da, Urrillaren lenengo egunean, Donostiko «Trinidadoko Plazan» xuberotarrek «Txikito de Cambo» deitzen den Pasturala delakoa agertu erazi zitugun. Arilarik, Yokulariak nai dugu esan, berrogeitsu ziren, denak gizonak, batzuek soñekoz jantziak agertu arren. Ikustekoa izan zen, eta gende aunitz begi onez eta atseginiez ikusten egona zen. Xeberotarrak «xarmanki» egon ziren bere «Pasturala» ager erazten.

ORREAGAKO BEILA

Beste urtetan bezala aurten ere gure aniak diran «Ultrapuertos» Merindadeko nafartarrek iragan den illeko amairugarrenean Orreaga'ko Erromeria izan zuten. Urteoro bezala gende aunitz gure Mendiko Erreginari agurtzeko joan-etorria egin zuten, eta bai dena ongi gertatu ere!

Baigorriko eta Garaziko aldetatik geienak etorri oi dira beren apezak gidari dituztelarik. Auekin batean Luzaideko erriakoez ere dijoaz Ibañetatik zear Orreagako Amatoarengana beren eskariak azaltzeko.

Orreagako Ama Birgiñak bedeinka ditzala gure Nafarro osoa baita gure Euskalerrri maitea ere.

EUSKALTZALEEN BILTZARRA BAIGORRI'KO ERRIAN (BENAFARROAN)

Mendiz beste aldeko Nafarroko Baigorri erri txukun eta pollitean pasatu den Buruillaren zarpigarrenean gure aniak diran beste aldeko euskaldun euskaltzaleek, au da, «Euskaltzaleen Biltzarra» Elkargoa delakoarenak, beren urteroko billera, edo biltzarra izan zuten.

Nafar erri au banderaz eta «xingolaz» apaindua zegoen, denei «ongi etorria» emateko gisan eta Alduide'ko erriatik dantzariak, galtza eta atorra zuriz jantziak, beren ezpatekin, Baigorri'ra eltzen zirenei «euskal agurra» ematen zielarik.

Goizean Zinemako gelan urteko Biltzar nagusia izan zen. Sala bete zegoen. Maipuruan «Euskaltzaleen Biltzarra»-ren buruzagi den Laberie mediku yauna, Dassanze ohorezko buruzagia, Etcheberry, Aintziart, Narbaitz eta, eta, yarri ziren.

Euskeraren aldeko eleketak, izketak izan zituzten. Azkenian euskerazko Meza entzunda denak, eguerdian, bazkari on batekin bukatu zuten Biltzar interesgarri au.

Gure agurrik beroenak mendiz beste aldeko euskaldun maiteei.

ERRIZ-ERRI



IRUÑETIK

ARO-SOLAS

Ohartu gabe udazkenean sartu gera, luma eskuan daukaten mementoan Buruilla utzi dugu alde bat, aroa udako indar berarekin ari zuten gure lurraldetan, olako idorte ain gogorra gutxitan aurtengo bezalakoa, yadanik udazkenean sartuak gaude.

Beroa egin du azken egun artio egunaz uda-minean bezela, beharrik gauaz freskura goxo batek arintzen zituela bazterrak, gisa huntan ongi ihasaiten gintuen beroaren nahigabeak.

Nolanai den dela, ez dugu oraindik aldakuntza aundirik, lurrak egarrituak dirade eta nekazariak badute zer pentsa ereintza lanak antolatzeko.

Esperantza ez da inoiz galdu behar, noizbait aldatuko zaigu aizea eta gure langilleak eginen dute bere tenorean lur-lanak urtero bezela.

Nabarmentzen da aldaira bat batez ere, erautsi polit bat egin zuten ganden illearen azken egunean eta euriketa goxo batek busti zuten lur idortuak; gertatzen dena euri-ondotik oztu du eta beste itxura bat artu du denborak, untaz landa gaztain-saltzaleak ikusten dugu Iruñeko karraketan, seiñale txarra denbora ona maite duguentzat.

USO-EIZIAZ

Urriarekin batian dator ehiztarien sasoña, iruñar aunitzek urteari bedere prestatzen dute beren suzko-tresnak (eskopetak) eta abiatzen dire mendi eta oyanetatik barna usoen gibeletik, leku egokienak aritzen dute beretzat, eta geienek aurretik diruketa gaitzak oraindik errietako Ayuntamendueri; gisa huntan mendi-lepo oberean ezarzen dute usategiak, han egoten dire usotaldeak iragaitearen zai bere deitzen duten «pulpitoetan».

Naparroako mendiak autak dire eizi mota orrentzat (pagoaren ezku-

rrek biziki laket zaiote usoeri), emendik pasten dire multso gaitzetan, ez bakarrik usoak baitere txori eta egaztiñ mota denetarik. Gauza arrot ederra da suertatzea udazkeneko egun argi eta epel batekin, ikustea millaka egaztin, buruen gañetik zerua kasik estaltzen zutela pasatzen andanaka España ego aldeko lurretara, benetan ikusgarria da.

Diote neguan Andaluzia eta Extremadura'n pausatzen direla geientsuek bazkatzen ango larre eta oyanetan, diotenez kalte gaitzak egiten omen dute usoak alhorretan eta bertze asko landaretan.

Endarlezatik asi ta itsasoaren urbil, badira usategi aunitz Naparroan gairdi, heken artean famatuena dira:

Etxalar (emen usoak atxemaiteko, ezartzen dute sareak zahaitzen tarrean eta urrunetik ezel batzuen medioz, sarrarazten dute uso-taldeak sareak dauden karraketan), usategiak badu ikusle asko; *Belate eta Artesiaga* (Baztanen), *Kinto-Real-Urtiaga* (Euguin), *Gabarbide eta Lindux* (Luzaide eta Auritzen), *Berrendi-Gibelea* (Orbaizeta-Aezkoan), eta abar Errokariko mendi gorretaraño.

Eizi-giroak irauten du Urriaren illebeten osoa, ehiztariak diote egun oberean aurkitzen direla illearen erditsuan 12-tik aintzin. Baño ez da errex aitzinetik jakitea noiz eta non kausituko duten ehiztariak, (kontuan iduki behar dute aizea nondik dator) okasio oberean tiroak botatzeko probetxuakin errua egin gabe.

Ehiztariak pazientzia aundirekin geldik eta ixiltasunean daramate orduak beren etxoletan, beti erne begira eskuin eta ezker ea noiz agertuko ote diren gaixo usoak. Denbora ona balin badago nonbait or, baño aroa makurtzen delarik asperrari eta neketsu da mendian egoitea, zeren laño zikin edo euriakin ez baitire egaldaten atertu artio usoak bazkatuak dauden tokietarik.

Ots, illunabarrean ehiztariak yausten dire eta bildu badute atsegingarriko eizia, itzultzen dire etxaldera pozik eta lasai erranez, gezurrik ez jakina, hau ta hura, baño eiztarietarik kanpo, beste guztiak uste dugu kobratu duten uso bakotzak, etzaiotela merke aterako... baño bakotzak bere temakin.




LESAKA

MEZA BERRI

Illabete ontako Lesakako go'tti-beittik kontatzen asi ezker, Meza Berriarentzako izanen litzake, nere ustez, lehenbiziko lekun.

Aita Martin Tapiak, praile karmelarra ta erriko semea, Meza Berria eman du. Lengo maiatzean, Beera, Obispo Agurgarriak, egin



zuen apaiz Erroman. An bertan meza eman ta errira etorri zitzaizgun laister. Emen, bere osabaren esperuan egon onduan, illabete onen iruan, meza kantau zuen, bere guraso-anaien aintzinean. Egia erranta, gutxi aldiz ikusi dut Eliza orrenen betia! Izan ere gure Martin denen laguna baitzen. Gañera, egun aretako Elizketak oso ederrak baitziran. Bortz apaiz a'ldare berean meza ematen ("Miss Concebrada", izena dauka onek erdaraz) ezgenun beñere ikusia le sakarrok.

Gauzak denak ederki ateri zitzaion; Meza akautu orduko, denak yuan giñen erdi lasterka eskuari musu ematera.

Elizatik bazkaltzeko lekura, txistu (Ttuntuna) soniuan etorri zan gure apaiz berria, yuan ere ala egin baitzen.

Aunitzek ezdute ahantziko egun zoragarri ure, ezpaita, gañera, ahazteko gauza. Gogoratu zaizkit ba, bertso batzuek erratea; ezdire oso ederki, baño, baño... balioko du egun ura beti goguan idukitze-ko.

Berriro lesakarrok, erraten al [degu, "erriko seme bat, prailea badau- [kagu, Martin izena dauka, Tapia ape- [llidu geienak meza ematen ikusi dio- [gu".

Gauz berria zen ta yendea arat [bildu, tokia atzapatzea yarritzen, ba [estu; batzuek meza eman, bertzeak [kantatu, "Sakristau bat" bitartean, dirua [eskatu.

Ameriketari falta, Kongon ere [egifien du, gure Martin orain, nora yuauen [zaigu; mundu zabal onek, apaiz eska- [sia du, Lesakan, ora'ndik, ba, faltarik [ezdugu.

A. ERKIZIAK



ARALAR

AIZE BERRIAK

Aralar'ko giroa erabat aldatzen ari dala, denok ikusten dugun gauza.

Guk ezagutu genun ezkerotzik (aspa'ditxo, ai!), beste aurpegi bat darakus mendiak, batez ere San Migel eliz inguruko alderdiak.

Gaurko aurrera bearrak bideberria ekarri zigun leenik; onek in-

Eriotza Arraiotz'en

Laskibar ta Larreta'tar Errosario, il zan. Agorrako (Buruillako) illabetearen amarean, Elizaren Laguntzaz Indartu ta Aita Santuaren Onespina, Bedeinkazioa arturik, joan zitzaizgun Betiko Aitarean besoetara. Goian bego.

ZERUKO ARGIA gure asteroko maitean, 238-garren zenbakian, lumeroan, zabaldu gendun berri trixte au. Agitz naigabaturik utzi gintuelako Laskibar'tar Errosario'ren eriotzak, orretxegatik zabaldu gendun Zeruko Argia irakurtzen duten guztiak jakin ta bere animaren alde oititz bat izan zezaten. Eta, orain berriaz, «Principe de Viana» ren irakurleeri ere adierazi nai diegu ain garrantzi eta inportantzi aundiko den eriotz au.

Gure artetik alde egin zuten betiko, bañan, bere oroimena, baita ere gu-tartean dago betiko. Izate ta nortasun aundiko adixkide baten gatik ez gera sekulan azten aal Iruoegi ta amaika urteko gorputz ura ustelkor gelditu bazan ere emen lurrean, illezkor dan animak artuko zuen betiko atsedena. Mundu ontan eraman zuten «bizitz garbiari» zegokionez, zorionezko zeruan arkitu bedi gure adixkide Laskibar'tar Errosario.

Arraiotz'ko txokoa, maite ta atsegingarri zitzaiolakotz, egonaldi batzuek egiten zituen urtero bere aideekin batera «Barrentxe-berria» izenezko etxe egoki ta dotorean. Euskal-Erriko zatitxo bat zalakotz, maite zuan Arraiotz. Maite zuan Tolosa, Tolosarra zalakotz. Itz batean esateko maite zuan Euskal-Erri osoa! Eta bera biotzez maite zualakotz, zoritxarrezko egun batez, utzi bere sortetxe, sorteri ta jEuskal-Erri osoa! ta iges egitera beartua izan zan arrotz-errietara, extranjerira. Gorroto txarrez ta maltzurkerizko eginkizunekin ordainduak izan ziran Errosario zenaren goxotasun ta biguntasunezko alegin ta leaketak.

Onbidearen egarri izan zan beti Laskibar'tar Errosario. Eta, emakume zuzen ta leiala baizan, argi ta garbi nabari izan zan bere animaren aldeko illetak, mezak, egin ziranean. Baztarretan adixkideak bazeuzkala ongi ikusi zan. Urbillekoak ta urrutietakoak samindurik ta naigabaturik utzi bai zituan, ortxe ziran Arraiotz'ko Eliz-nagusian azken agurra emate arren etorriak. «Puntu» bat ikuttu (ukuttu) bearra daukat, eta auxe da: Arriturik juan ziralta jende guztiak, ikusirik ta entzunik nola Arraiotz'ko erriak abesten (kantatzen) duen euskeraz elizan. Alaxen da benetan. Goragarria da. Neroni ere zoraturik egoten naiz bertako elizkizunak ikusi-ta. Ez da Salmo bat ere latinez abesten. jJakiña, artzai onak, ardiak ere era berekoak izaten ditu...

Gero, azkenez, Laskibar'tar Errosario zenaren naia betez, bere gorputza Arraiotz'ko obitegian (kanpo-santuan) eortzi zuten. Oro, bera-gatik. Goian bego.

GORTARI TA UGARTETAR YON

Mikel Mindegia, Ezkurrakoa, Tolosa'ko aizkolari gazteen arteko txapelduna

Igaran den Buruillaren lendabiziko egunean, atsaldeko bost erditan, Tolosako Zezen-plazan Euskalerriko Aizkolari gazteen arteko Txapelketa izan zan. Txalogarri benetan Tolosako anaiak antolatuta zutena, dena oso ongi egon baitzen. Jendea izugarri bildu zen, eta tolosarrek zorionak merezi dituzten ain ederki norgeiagoka prestatu zuelakoz.

Zazpi aizkolari gazte azaldu ziran, lau napar eta iru gipuzteko.

Aizkolari bakoitzak zortzi enbor, lau 54 ontzako, eta beste lau 45 ontzako, ebaki bear izan zituen.

Azkenean orden onetan gelditu ziren.

Txapelduna: Mikel Mindegia, Ezkurrakoa, emezortzi urtekoa. 25 minutu ta 17 segundutan.

Bigarren: Joxe Urkiola, Leitzeko, ogei urtekoa. 25 m. eta 56'tan.

Irugarren: Jexus Orbegozo, Azpeitiko, emeretzti urtekoa. 27 m. eta 35'tan.

Laugarren: Joxe Jabier Oreja, Uiziko, ogei urtekoa. 27 m. eta 47'tan.

Bostgarren: Jexus Olaizola, Azpeitiko, emeretzti urtekoa. 30 m. eta 38'tan.



Seigarren: Fermin Azpiroz, Gorritiko, emezortzi urtekoa. 38 m. eta 37'tan.

Joxe Manuel Elzeizalde, Gipuzteko Ayakoa, etzun bere lana bukatu ahal izan.

Gure txalorik beroenak Aizkolari gazte denei, bereziki Txapeldun eta Bigarren gelditu ziren Naparroko Mindegia eta Urkiola mutiliei.

dar eletrika, ta batak eta besteak berebiziko aurrerapideak jartzen ari zaizkigu begien aurrean.

Badu denbora puska bat ARTXUETA tontorrean «Telebixta» abe edo poste bat eraiki zutela. Oni esker, Arakil, Sakana, ta Burundatarrak alde batetik, eta Araiz, Larraun, Imotz eta Baraburutarrak bestetik, agkoz obeki ikus ten omen dute «Telebisica». Pozik bategozke!

Egun auetan «Te'grafos»koak beste anbateko burni abe bat jaso dute ARTXUETA'n bertan, diotenez «satelite artificial» delako baten bitartez, mundu guziarekin telegrafoz jardukitzeko. Etxetxo polit bat ere iragi dute abe ondoan, ortarako bear den tresneri guziaren gordeluko ta egileor. Euskal aire zertxobait eman ballote... Avila'tik ekarritako arriarekin egiña dago, ARALAR'en arririk ez ta!

«Telefonos»koak ere beste orrenbeste egiteko asmatan omen dabiliz. Aurki, irugarren abe edo pos tea or dagoke, mendi galdorrean, zut eta tink, aizbeltz eta tximistai jarkitzeko aurpegi ematen.

Bestalde berriz, beribil edo auto ta moto askotakoak or dabiltz, go-ra ta bera, gelditu gabe, nun geldi ez ta.

Aralar ez ta Aralar. Beste itxura bat artzen ari da. Obea? Txarrragoa? Nola den! Mendizale ta pakeza'eak ez dituzte aldakutza auek begi onez ikusten. Zibilizazioaz ase rik eta okaturik baitaude beren errietan, ta ain zuzen ere, pake gose ta aize garbi egarri, oien billa etorri oi baitira Aralar mendira.

Gaurko jende geienak ordea diruari ta erretxasunari bakarrik begiratzen dio, beste bal'ozko aberastasan batzuk gutxiesten edo ta alde bat uzten ditula, ala nola edertasuna, ixiltasuna, pakea, garbitasuna, jatortasuna...

Aralar maite maitea, aurpegia aldatzen ari zaizu, uraunka agiri danez: alde guzietatik zauriak, ospe'ak, karetxak eta oretzak dagerz kizu. Zartzen ari ote?

Erosotasuna? Bai, bai; ortan gaude gu ere. Baño... erosokeria? Ut, ut, ut!!

ARTXUETA'ko UNAIA



BAZTAN




BESTAK

Elbete'ko Santakruzetako bestak igaro dira eta oiekin batean udara ere goan zaiku. Aurten eskuarazko Meza Nagusia guziz ederra izan da, «concelebrada» deitutakoa eta inguruko errietako apez baztandarrak aldean bildurik. Oititzak eta Kantak apezek erriarekin batean, hunkigarriak izan ziren.

Igusgarrien artean merexi du aipatzea azkeneko egunean igandearekin erakutsiak. Iruñe'ko Ayuntamentuko dantzariak aritu zitzaizkigun Euskalerriko dantza zoragarriak dantzatzu eta beti bezala trebetasun aundiarekin agertuaz. Iruñarren aitaldia guziz gustagarria izandu zen eta beldurrik gabe erran dezakegu, Iruñe'ko dantzari ok Euskalerriko obereketakoak direla eta gure euskal dantzak zaletasun aundiarekin zaintzen dituztela.

Yende aunitz bildu zen eta denek txalo ta esku-zarta beroekin beren bozkarioa agertu zuten. Gure zionik maitekorrenak Iruñar neska ta mutil jator oieri eta gure goresmen bizienak txistularieri eta Dantzari-Taldearen Aintzindari den Azkona Yaunari. Eta atzendu gabe, ar ditazela gure zorionik aundienak Baztan'go ta Elbete'ko Aintzindari Yaunak orrelako besta ederra antolatu dutelakotz. Elbete'ko bestak bake ta elkartasun ederrean igaro dire eta orai Urriko ilabetea, usoak aidean, ihiztariak ametsetan eta nekazariak iretzetan.

M. IZETA



Aurten ondarrabitarrak estropada guzietan txapelkunak. Zorionak biotzez.

K I R O L A K

Kantauriko itsasoan Donosti'ko estropadak dira famatuena, arraunlari borrokaldirik inon balinbada Donostikoak ederrenak guretako beñipin. Aurtengo estropadak guzien gañekoak izan dira, sei treñeru zein-geiagoka ikusi ditugu, seiak gipuzkoarrak eta denak garaipena ardiesteko naikeriarekin. Arraunlarien borrokaldi ori Buruilaren 3'an eta 10'ean ospatu zen eta bi igande oietako gudukaldia egin ondorean, emen Donosti'ko estropadak nola gertatu diran.

Lendabizikoa ONDARRABI Laugarren PASAI-DONIBANE
Bigarren ORIO Bortzgarren JAIZKIBEL
Iruugarren LASARTE Seigarren ERRENDERI

Azkenengo igande ortan Ondarrabi eta Orioren arteko burruka izigarria izan zen eta Ondarrabi'k iru segundoen alde bertzerik etzion atera. Or ageri da borrokaldi bortitza zela.

Donosti'ko mundu bat yende bildu zen eta denak kontent estropada ederrak ikusi zituztelakotz.

Donosti'ko estropaden ondotik izan ditugu desafiozko estropadak ere. Ondarrabi, Pedreña'ren kontra eta Orioren, Astillerorekin. Buruz buru bi erri gipuzkoar bi santandertarren kontra. Estropada auek bi txandetan eginak dituzte, bat Santander'ko uretan eta bertzea Gipuzkoarretan. Oriotarrak eta Ondarrabitarrak bietan aisa irabazi zuten, beren garaipenaren bidez gipuzkoarren gaintasuna agertuaz.

Gero Buruilaren 23'an eta 24'ean Portugalete'ko ibaian ere sekuleko arraunlari jaia izan dugu eta ortan zortzi treñeru ari izanaki ditugu, denak borroka bizian eta denak garaipena ardietsi naiez. Portugalete'ko estropada auek izigarriak izan dira, or Oriotarrak ta Ondarrabitarrak elkarri ortzak erakutsiaz eta gudu gorrian ibiliak dira. Larunbata eta igandeko arraunketak egin ondorean, emen gertatutakoak.

Irabaztale ta Txapeldun	...	ONDARRABI	41	minutu ta	18 s. tan
Bigarren	...	ORIO	41	»	23 »
Iruugarren	...	ASTILLERO	41	»	37 »
Laugarren	...	PEDREÑA	41	»	57 »
Bortzgarren	...	LASARTE	41	»	35 »
Seigarren	...	PASAI-DONIBANE	43	»	04 »
Zazpigarren	...	KAIKU	43	»	56 »
Zortzigarren	...	PENACASTILLO	45	»	24 »

Oartu zaitezte Ondarrabi'k Oriori ateratuko alde gauza utsa dela, or ageri da biek elkarren idurikoak direla. Beti ere aurten Ondarrabi dugu oherena eta oraindik estropada bat bakarera ere galdu eztena. Zorionak ondarrabitarrak eta segi beti hola hola.

S O K A - T I R A

Goan den Buruilaren 24'ean Donosti'ko Trinitateko plazan Espaiña'ko sokatirarien Txapelgoa egin dute. Xapelgo untan sei sokatirari Talde ari izanak dira. Bilbao, Oyartzun, Zarautz, Usurbil, Hernani eta Elizondo, lau gipuzkoar, bizkaitar bat eta nafatar bat, denak indartsuak eta aski gizon aundiak. Gure baztandarrak ongi ari izanak dire eta Nafarroa'ren izen leku onean ezarri dute. Elizondarrak eta Bilbaotarrak borrokaldi ederra egin zuten bilbaotar sokatirariak irabazirik, baño ez aisa. Azkenengo tiraldian bi oherenak aritu ziren, Bilbaotarrak eta Zarautzarrak eta gudukaldi egin ondorean, Zarautzarrak irabazi zuten Espaiña'ko Txapelketa bereganatuz. Zorionak irabaztaleeri eta gure goresmen bizienak Elizondar sokatirariari eta urrengoan suete oheagokoarekin geiago eginen dute.

M. IZETA

PILOTARIAK



Nafatar pilotariak badoazi aintzinat. Ortze ditugu Retegi, Lajos eta Bergara, iruek sasoin izigarrian eta bolai untan partida geienak irabazten dituztela. Iru pilotari auek arrakasta aundia dute eta or dabil-

tza an emenka Euskalerriko plaza famatuenetan yokatuz eta beti oheren oherenekin. Yarraiki ortan eta segi beti aurrera.

«Amateur» deitutako mallan Nafarroa'ko pilotariak ere gure eskualdea goratu dute. Orain berriki Iruñe'n yokatuak dituzte Espaiña'ko pilotari gazteen Txapelketa edaraz «Juveniles» deitzen dituztenak, eta zein-geiagoketa untan Nafartarrak irabazi dute. Emen ari izanak dira, Eskuz, Zesta-Punta, Pala-Corta, Paletaz eta Erremontez. Nafartarrak, iruetan irabazi dute, paletaz, erremontez eta eskuz. Esku uskako partida arras atakatu izan omen zen, Nafartarrak eta Gipuzkoarrak borroka bizian aritu zirelarik. Azken partida untan Etxandi ta Orexa nafarrak, gipuzkoar Altuna ta Muga garaitu zituzten. Lenbizien gipuzkoarrek aintzinean goan ziren beren alde 17-7 zutelarik, gero nafarrak ernatu ziren eta airez aire 17 garren tantoa berdindu eta gero aintzinat segituz partida irabazi 22-18. Partida ederra izan omen zen. Orexa Errazkindarra da eta Etxandi Erratzuarra, amazapi urteko mutikoak. Zorionak bieri. Aupa gaztetxoak laster lenbiziko mallakoan artean ikusiko zaituztegu.

Ardi zakurren txapelketa

Oñate'n egin diren ardi zakurren txapelketak fama aundia artu dute, aurtengoarekin zortzi garrena izan da eta erraten dutenez azkenengo au izan omen da denen gañetik oherena.

Buruilaren 24'ean Oñate'ko errian millaka yende bildu ziren artzain zakur oien Xapelgoa ikustera. Ikusgarri ederra bai eta an bildu zirenak ere gorki kontent. Bederatzi zakur ari izanak dira eta oien artean, bi gipuzkoar, bi nafatar, bizkaitar bat, arabar bat eta iru mugaz bertzaldekoak.

Lendabiziko saioak egin ta ondoan, bigarreneko borts zakur berexi zituzten eta azkenik borts oien artean, bi aukeratu zituzten oken artean oherena izendatzeko. Azken saioan aritu ziren, «Riki» Serafin Etxanobe'rena eta «Txabala» Xabier Okerantza'rena eta bieri eman zaizten lan bera aski polita izan zen. Emen beren eginkizunak:

Ardiek belaiaren bazter batean zauden eta artzaña bere zakurrarekin oienganik urrun belaiaren bertze bazterrean. Artzañaren aginduz zakurrak bear zuen artaldea zagon lekura goan eta ardi guziak artzaña zagon lekuraño ekarri. Gero berriz itzularazi eta belaiaren erdian kokatu zagon kertzolaren barnera sarrazi eta gero kertzolatik berriz kanpora atera.

Bi zakur oiek beren artzañen erranak zuzen zuzen egin zuten ikuslar guziak arritu zituztelarik. Arrigarria zen bi zakur oiek egin zuten lana eta zein garbi eta zuzen bete zituzten agindutako guziak! Juradokoak lanik aski bazuten oherena berexen eta azkenean Auzia gisa untan erabaki zuten.

Irabaztale ta Txapeldun: «TXABALA», Araba'ko Tertanga'ko Xabier Okerantza'rena.

Bigarren: «RIKI», Bizkaiko Mañaria'ko Serafin Etxanobe'rena.

Iruugarren: «PASTOR», Gipuzkoa'ko Eibar'ko Alejandro Larrañaga'rena.

Laugarren: «LAU», Gipuzkoa'ko Oñati'ko Bizente Urtzelai'ena.

Bortzgarren: «FINA», Nafarroa'ko Intza'ko Isaak Ezkurdiarena.

Seigarren: «SOUmise», Bases Pyrenees'koa.

Zazpigarren: «FAROU», Alccay'ko Pierre Garikoitz'ena.



Bi napor artzaiak bere arditzakurrekin Nafarroaren partez Oñaten egondu zirenak. Ezkerrekoa Mikel Goikoetxea, «Kontxi» izenezko txakurrarekin. Eskubikoa Isaak Ezkurdi, «Fina» deitu txakurrarekin. Bata Azkaratekoa, bestea Intzakoa, biek Araiztarra.

Zortzigarren «FIDELE», Urepel'ko Emile Glaise'na.

Bederatzigarren: «CONCHI», Nafarroa'ko Azkarate'ko Mikel Goikoetxea'rena.

Arraza ohereneko zakurrari eskerñitako Saria «FIDELE»'k irabazi zuten, Urepeldar E. Glaise'na. Bizen-

te Urtzelai'entzat izan zen obekiena apaindutako artzañari eskerñitako Saria.

Gure zorionik maitekorrenak artzain guzietan eta besta orren antolatzaileeri. Zorionak berriz ere.

M. IZETA



Balentin Uriona zenaren oroimenez

Balentin Uriona, Bizkaiko txirrindulari on eta azkarra il zeneko berri garratz eta mingarria aspaldikoa da. Denok dakigu nola Sabadelle'n Espaiña'ko Txirrindularien Txapelketa lurrera eroririk andik ordu gutxitarra il zela.

Ekartzen ditugu gaur bere irudia eta onekin batean gure oroimenik sentikorrenak eta otoitzik gartsuenak bere arimaren alde.

Uriona zena Bizkaiko Muxika errian sortua zen, kristau zintzo, txirrindulari famatu, iñoiz eta iñun etsairik etzuen euskaldun jatorra. Bere sorterrira eramán zuten gorpuzta. Yainkoak ziurki Bere Ondoan izanen du betiko! G. B.



Nagusuari:
—Zergatik uzten nauzu lanik gabe, ez bai dut ezer egin?
—Orrexengatik; zerbait egiten duten mutillak behar ditugu.

Eskolako berriak:
—Ama! Bi berri ekartzen dizkizut, bat ona eta txarra bestea.
—Zein da ona? «Errebalida» atera dutela.
—Au poza! Asko egin duk.
Eta zein duk berri txarra?
—Ori ez dela egia.

—Emakume bati, uste gabe, anka lertzen badiok... zer eginen duk?
—Barkazio eskatu.
—Eta ikusirik zein ongi ikasia aizen duro bat ematen ba dik?
—...belaxe joan eta beste anka lertu.

Bi arkakuso zine batetik atera ta elkarrekin izketan ari dira. Euria dakar eta esaten dio batek besteari:
—Zer egiten dinau! Oñez joango gaitun edo, edo, txakur bat artu?

Aur txikiari ezin janaraziz:
—Juanxo; zopa ori ez ba duzu jaten otso beltzari otsegingo diogu!
—Obe izango da, bai; behar ba da arrek jango luke.

Gerra:
Mutil gazteak: —Nere adinean ez da bildurrik. Gerrara joateko prest nintzake...
Ezkondak: — Ez du Viet-Nam beharrik; ezkondu adi.

Esnea: (aurrari)
—Auxe bei ederra! Zenbat litro esne ematen ditu egunean?
—Amar.
—Eta zenbat saltzen?
—Ogei bat...

